


Gezala

AUDITORIUMA

K
U
H
L
O
T
T
U
S
R
A
K



ASTRONAUTUS

KONTZERTUA



urtarrila 14 ostirala 22:30etan
GEZALA AUDITORIUMEAN

2001ean sortu zen Bartzelonan *Astronautus* taldea. Las Palmas, Buenos Aires edo Bartzelona bezalako jatorri ezberdinetako partaide gaztez osatutako boskotea da taldea. Errepertorioa beraiek sortutako abesti originalenez osatua dago.

Saxo altu eta sopranoak, kontrabaxuak, bateriak, gitarra elektrikoak eta fender rodhesak osatzen dute taldearen instrumentala. Bi azken hauen konbinaketak taldeari soinu berezi bat ematen diote eta laguntza harmonikoari leku aproposa uzten diote.

Instrumentazioak arlo akustikoa eta elektrikoak lantzen ditu eta abestien errepertorioak chacacera, bossa-nova, swing irekia edo baita drum & bass bezalako erritmoak lantzen dituenek taldearen estiloa fusion bezala definitu ohi dute.

Sortu zirenetik *Astronautus* taldeak ibilbide oso interesgarria izan du eta estatuko club esanguratsuenetan jo izan dute: Jam-boree, la Cova del drac-Jazzroom, Terrasako la Nova Jazz Cava, Gironako Sunset...

Astronautus taldeak bere lehen diska 2004ean grabatu zuen, Jazz munduan prestigio handia duen Fresh Sound New Talent diskaetxearekin.



Pirritx eta Porritx

Maite zaitut

urtarrila 8 igandea

18:30etan

GEZALA AUDITORIUMEAN

Sarrera
5 €


maite zaitut



Lezoko zine agenda

URTARRILA ENERO

2006



Gezala

AUDITORIUMA

800 zinema



Osteguna / Larunbata **2,00 €**

Larunbata 16:30etan **1,00 €**


2006. urtea aldaketa pare batekin hasi dugu eta horren berri emateko leku aproposa da agenda. Lehendabizikoa egun aldaketari dagokio. 2006ean haurren programazioa igandetik larunbatera pasa dugu. Edonola, ordu bera mantentzen da, arratsaldeko 16:30etan, hain zuzen ere.

Bigarren berrikuntza urtarileko egitarauaren edukiari dagokio. Orain arte bezala, ostegunetako eta larunbateko bereizketa mantentzen jarraituko badugu ere, kasu bakoitzean proiektzioen arteko lotura bat sortu nahi izan dugu. Modu horretan, urtaril honetako larunbateko pelikulek Argentinan ekoiztu diren filmen berri jasotzeko aukera izango dugu.

Osteguneko saioei dagokionez, urtarileko ostegunetan kontinente ezberdinetan egiten den zinemaren adibideak hurbildu nahi izan ditugu, ekoizteko eta istorioak taxutzeko garaian, jatorriak diferentziak edota parekotasunik sortzen dituen ikusi ahal izateko helburuarekin.

Bestela, egitarauak betiko funtsa izaten jarraituko du. Ea aurten ere, Lezon ikusten dugun zinea ikusle ezberdinak asebetetzeko modukoa den.

OSTEGUNA • jueves



EL SECRETO DE LA ISLA DE LAS FOCAS

Sayles zuzendari iparramerikar independentearen filmerik *magikoena* izango da ziurrenik gaurko hau. Ez da Saylesen filme politiko edo gizarte gaiak lantzen dituen. Ipuin magiko eta polit bat, Irlandan kokatua eta hango kulturaren ezaugarri askotan oinarritzen dena istorioa kontatzeko. Istoriaren gain, oso azpimarratzekoa da antzezleek egiten duten lan dramatikoak. Gure betiko Sayles beste erregistro batean ikusteko kale egingo ez dizun aukera duzu foken irla honetan.

1994, EEBB, Irlanda ⌚ 103 min. 🎬 John Sayles.
👤 Jane Courtney, Pat Slowey, Dave Duffy, Tony Rubini.



HERO

Zhang Yimou buruzko zinema bi hitzetan laburtzeko eskatuz gero *fin*a eta *dotorea* izango lirateke aukeratuak. Bi horietaz gain, ederra, koloretsua edo zoragarria bezalako adjektiboak ez lirateke soberan izango. Duela mende asko, hainbat munduko beste lekutan bezala Txina ere gerratan dabil. Batzuk batasunaren aldekoak dira, beste batzuk beren aginte eremuak mantenu nahi dituzte. Gerra horietako legenda bat oinarritzat hartuta filme polit hau taxutzen du berriro ere kale egingo ez digun Yimou-k.

2002, Hong Kong, Txina ⌚ 99 min. 🎬 Zhang Yimou.
👤 Jet Li, Tony Leung, Maggie Cheung, Ziyi Zhang.




LEJOS

Tanger izango da hiru pertsonai elkartuko diren puntua. Sergek Sarahren ondora bueltatu nahi du. Sarahk Montrealen bizi den anaiarengana alde egin nahiko du. Bi pertsonai hauen artean Saïd agertuko da, helburu bakar batekin: Europara nola hala iristea. Frantziako zinemak ohitura handia izan du beti gizarte gaiak lantzekoa. Kasu honetan ere, gaur egungo zuzendari emankorrenetakoak etorkinen gaia lantzen du errealismo gordinez, eta mizkerietan erori gabe.

2001, Frantzia ⌚ 120 min. 🎬 Andre Techine.
👤 Stéphane Rideau, Lubna Azabal, Mohamed Hamaidi, Yasmina Reza.


LARUNBATA • sábado



LUNA DE AVELLANEDA

Argentinako zuzendari ezagunenetarikoa da Campanella. Bera baino ezagunagoa Ricardo Darin antzezlea. Argentinan ekoiztu eta Atlantikoa pasatzea lortzen duten filme gehienetan azaltzen da. Zergatik ote? Ona delako? Zine interes komertzialei ongi erantzuten dielako? Zuk erantzun! Hilabete honetan *Luna de Avellaneda* hau eta beste pelikula batean ikusteko aukera izango duzu eta. Elkarte arrakastatsu izandakoak garai berriei aurre egin beharrean aurkituko da. Ziur Darin jaunak zerbait asmatuko duela.


2004, Argentina ⌚ 143 min. 🎬 J.J. Campanella.
👤 Ricardo Darin, Eduardo Blanco, Mercedes Morán, Valeria Bertuccelli.



NUEVE REINAS

Zinemaldi txiki askotan sari ugari jasotako filma. Ikusi duen orok du esatekorik zerbait positiboa. Pelikula, azkar eta bizkorra. Gidoi landua eta modu oso egokian egituratua. Juan kutzazain bati iruzurka ari zaio. *Profesional-tasun* eskasarekin ia harrapatu egiten baitu tranpetan. Orduan ezagutzen du Markos, iruzurrean laguntzen diorean. Biak dira lan txikiak egiten dituzten iruzurgileak eta lan *handi* batean parte hartzeko aukera izango dute elkarrekin.

1999, Alemania ⌚ 107 min. 🎬 Caroline Link.
👤 Elea Geissler, Max Felder, August Zinner.




EL ABRAZO PARTIDO

Gazte zelarik bere aitak Buenos Airesetik Israelera alde egiten du. Mikro mundu bat osatzen duen Buenos Aireseko denez osatutako galeria batzuetan gertatzen da hemen kontatzen den istorioa. Oso ongi marraztutako pertsonaietan oinarritutako pelikula erakargarri horietakoa da *El abrazo partido* hau. Denda batetik besterako joan-etorriek, bertako protagonisten arteko harremanek... gurea bezalaklo eguenrokotasunak ematen dio xarma istorioari... Ah, eta amaierarako zuzendariak prestatua duenak, noski!

2000, Argentina ⌚ 114 min. 🎬 Fabian Belinsky.
👤 Gastón Pauls, Ricardo Darin, Leticia Redice, Tomás Fonzi.

ZINE

LARUNBATA • sábado



ANNALUISE ETA ANTON


Annaluise 10 urteko neskatila da eta Antonek 11 ditu. Leku ezberdinetatik etorri arren, lagun minak dira biak. Antonek gaixo dagoen bere ama zaindu behar du eta horretarako izozki denda batean egin beharko du lan. Bestalde, ikastetxean lo hartzen du eta bertatik bidaliko ote duten beldur da. Annaluisek bere lagunari lagundu nahiko dio, baina bere guraso aberatsak ez diote ez arretik jarriko, ez dirurik emango. Beste modu batean ezin izan eta nola ez, aipatutakoa gutxi bada, hemen aipatu ezin ditugun abenturak pasa beharko dituzte bi gaztetxo hauek beren adiskidetasuna mantentzeko. 1996, EB 65 min. Tim Dowd. Jemima Rooper, Marco Williamson, Paul Child, Laura Petela.



BOSTAK (4)

Aurreko hilabeteen hasitako abenturekin jarraituko dute bostak. Oraingoan hiru abentura ikusi ahal izango ditugu: "Bostak estuasunean", "Bostak kanpinera doaz" eta "Bostak kontrabandisten artean". Lehenengo abenturan bahiketa kontuekin egingo dute topo, bigarrenengoan mamuak jarraitu beharko dituzte eta hirugarren abenturak kontrabandistak izango ditu gai. Galtza bete lan izango dute oraingoan ere gure laguntxoek.

2004, Argentina 99 min. Daniel Burman. Daniel Hendler, Adriana Aizemberg, Jorge D'Elia, Sergio Boris.



HARRY POTTER ETA SORGIN HARRIA

Harry Potterren abentura berri bat ikusi ahal izango da pertsonai honen mundu beldurgarria sartzera ausartzen den orok. Egun batean bizitza errotik aldatuko dion gutuna bat jasoko du Harryk, Hogwarts eskolan onartu dutela jakinarazten baitiote gutun hartan. Eskola bitxi horretan benetako lagunak egingo ditu eta magia egiten ere ikasiko du Harryk. Bere harri-durarako, ahalmen miragarriak dituela konturatuko da. Izan ere, Harry Potter egiazko aztia da!

2001, EEBB 152 min. Chris Columbus. Daniel Radcliffe, Maggie Smith, Robbie Coltrane, Richard Harris.

AUDITORIUMA

Gezala

URTARRILA - enero

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 12	22:00	EL SECRETO DE LA ISLA DE LAS FOCAS
LARUNBATA 14	16:30	ANNALUISE ETA ANTON
LARUNBATA 14	22:00	LUNA DE AVELLANEDA
OSTEGUNA 19	22:00	HERO
LARUNBATA 21	16:30	BOSTAK (4)
LARUNBATA 21	22:00	NUEVE REINAS
OSTEGUNA 26	22:00	LEJOS
LARUNBATA 28	16:30	HARRY POTTER ETA SORGIN HARRIA
LARUNBATA 28	22:00	EL ABRAZO PARTIDO